


Pop, rock, triki...

Berri Txarrak, Idi Bihotz eta Parasma izango dira gaur txosna gunean



XOUSE SIMAL



Idi Bihotz talde bilbotarra

IDI BIHOTZ

Heavy metal klasikoaren belaunaldi berriak dira bilbotar horiek. Orain gutxi kaleratu dute bigarren lana: *Arima erratua*, Oihuka disko etxearekin. Ibanek (baxua) Gorkak (gitarra eta ahotsak), Alvarok (bateria) eta Mikelek (gitarra eta ahots nagusia) osatzen dute taldea.

Bateria da taldekide berriena; izan ere, azken urte eta erdian lauzpabost aldaketa izan dituzte. Alvaro, ordea, ongi finkatu da, eta taldean hori igarri egiten dela diote.

Mitologian oinarritutako diskoa da *arima erratua*, eta abesti guztiak ere gai beraren inguruan ari dira. *Heavy* klasikoaren eredu berria, beraz, gaur gauean Usurbilen.

MIKEL URDANGARIN

Zornotzarra ausarta da, eta hala erakutsi du bere bi diskoetan ere. Badira hiru aste disko berria arrakasta izaten ari dela, eta jo ta sua dabil kantautoreak diskoa aurkeztzen hemen eta han.

Diskoa nolabait deskribatzekotan zera esango genuke: sinpletasunez lortutako dotoretasuna. Doinu zeltiarrak ere nahasten ditu, eta

hango eta hemengo musiken arteko zubia egitea nahiko lukeela azaldu izan du kantautoreak berak.

TAPIA ETA LETURIA

Iaz kaleratu zuten azken diskoa: 1998. Trikitilariak dira eta hala erakusten dute beren lanean ere. Dena den, aurkezpen txikia behar du bikoteak Usurbilen. Izan ere, sarri askotan ikusten zaie herri alde horretan.

MAIXA ETA IXIAR

Solasin da kaleratu duten azken lana. Durangoko azokarako auzetuzten, baina denbora luzetxoagoa itxaron behar izan genuen hura plazetan entzuteko, Maixa Lizarribarrek istripu bat izan baitzuen.

Laugarren lana guztietan poperoena dela esan izan dute taldekideek, baina trinkoagoa ere bai. Plazako neskak direla ez dago ukatzerik, eta jaietan dantza giroa sortzeko primerakoak.

JOXE MARI BELTRAN ETA TTAKUN TTAKUN

Musika tradizionala entzuteko aukera paregabea eskainiko du Joxe Mari Beltranek.

Kontzertuak

Ekainak 30, asteazkena

23:00: Berri Txarrak, Idi Bihotz, Parasma; Txosnetan.

Uztailak 1, osteguna

00:45: Akelarre

Uztailak 2, ostirala

23:00: Eztanda, Tapia eta Leturia eta Maixa eta Ixiar.

Uztailak 3, larunbata


18:30: Joxe Mari Beltran eta Ttakun Ttakun

20:30: Mikel Urdangarin

Dena den Usurbilen eskainiko duen saioa berezia eta zehatza izango da, eskusoinu tresnen erakustaldia egingo baitute. Larunbatean izango da hori.

BERRI TXARRAK

Urtebete inguru igaro da lehen diskoa kaleratu zutenetik, eta orain bigarrena bidean dator. *Heavy* dute ardatz irurtzuarrek, eta hala erakutsi izan dute beti. Indarra dute zuzenean.



ANTXETA



Taberna Jatetxea

Zubiaurrenea, 6

Tel.: 943 370 344

20170 USURBIL

BEREZITASUNAK

Pintxo Hotz eta Beroak

Ogitartekoak

Bazkariak - Afariak

Jaunartzeak - Agur afariak

Eguneko Menua

TXIRIBOGA


TABERNA

• bokatak • pintxoak

zorionak eta ondo pasa jaietan!

Irazu kalea, 7 • Tel.: 943 37 00 13 • USURBIL

Berriro ere,



Ixabel santuba !

ZORIONAK

AITZAGA

Taberna

Gaudenok
ondo pasatu,
eta ez daudenak
gogoratu !!



USURBIL